

Baziren behin bi amonatxo: Antea eta Filipa. Bi amonatxoak elkarrekin bizi ziren, elkarrekin jaten zuten, elkarrekin lo egiten eta elkarrekin amets...

Astelehenetik larunbatera, jaki normal-normala prestatzen zuten; ur-zopa. Igandeetan, zerbait berezia jartzen zuten; ur-zopa fideo erdibitu batekin: erdia Antearentzat izaten zen eta erdia Filiparentzat.

Egun batean, Anteak babarrun bat aurkitu zuen sukaldean eta zera pentsatu zuen: Erditik zatituta, babarrun betea prestatuko niken .

- Ez, hobe izango dinat ... babarrun-zopa egitea!

Altxor hura behatz artean hartuta, sua jartzera abiatu zen, baina, zoritxarrez, babarrunak irrist egin, lurrera erori eta hiru jauzi egin zituen ... TOK TOK TOK. Babarrun hartatik landarea sortu zen, eta hazten hasi zen. Hainbeste eta hainbeste hazi zen landarea, zeruraino iritsi zen. Antea, babarrun-landareari gogor oratuta, igotzen hasi zen; hainbeste eta hainbeste igo zen, hura ere zeruraino iritsi zen. Han, hodeietan, ez zuen aurkitu erraldoirik, ez gaztelurik, errota bat baizik. Errotarria bira eta bira ari zen, errotarri guztiak bezala. Alde baterik garia sartzen zen, baina bestetik ez zen irina ateratzen, jaki gozo-gozoak baizik. Antea jan eta jan aritu zen, aspertu arte.

Gero, babarrun-landarearen barrena jaitsi zen, eta, jauzi bat eginda, sukaldean agertu zen:

- Zeruan errota bat zagon eta gosea kentzen din. - oihukatu zuen.

- Nik ere ikusi nahi diñat hori! - esan zuen Filipak.

Babarrun-landarearen gora hasi ziren bi amonatxoak, pausoz pauso, hostoz hosto ... Antea zihoan aurretik. Barraskiloa bezain motel ari zen igotzen, tripa lehertzeko zorian zeukan eta. Filipa atzetik zihoan. Dordoka bezain mantso ari zen igotzen, tripa huts-hutsik zeukan eta; sei egun baziren fideo erdirik ere jan ez zuela.

Iristear zegoela, eskuek huts egin zioten Filipari, zangoek ere huts, eta erotzen hasi zen, behera, behera ... Antea, babarrun-landareari ongi oratuta, oihuka ari zen;

- Filipa, nora hoa?

Eta Filipak:

- UUUOOOAAAAA ...!

Filipa berehala iritsi zen lurrera, jakina. Antea ere laster etorri zen; landarearen barrena jaitsi, jauzi bat egin eta hantxe ikusi zuen ... Filipa maitea, inor baino antolatuagoa izaten zen hura bera, sukaldean sakabanatuta: zango bat mahai azpian, sudurra koilara gainean, beso bat eltze baten barruan ...

Pazientzia handiarekin, Anteak banan-banan jaso zituen Filiparen zatiak: mahai azpian batetik bestera zihoan zangoa, koilaran doministikuka ari zen sudurra, eltetik agur eginez zebilen besoa ... Gero, lasterka joan auzoko andrearen etxera, zer gertatu zen kontatu zion eta hainbat gauza eskatu zizkion: irina, esnea, arrautzak, azukrea eta gatz pittin bat. Sukaldera itzuli zen, sua piztu, eltzea gainean jarri, osagai guztiak banan-banan bota ... eta nahasi eta nahasi aritu zen oreak irakin zuen arte. Eta proba egitea erabaki zuen: pasta hartatik pixka bat hartu, Filiparen behatzean eman, oin batera hurbildu eta ... itsasi zen!

- Balio din! – oihu egin zuen Anteak. Eta lanari ekin zion. Lehenik oinak itsatsi zizkien zangoei (zeren, etxe bat teilatutik hasi ezin bada, amonatxo bat ere ezin izango baita burutik hasi). Belaunei olioia eman zien, besoak gorputzari lotu, besagainak lepoari, bekokia sudurrari, baina

- Zerbait ez zagon ongi! Hezur bat falta zaion ... Zer egin orain? Antea pentsatu eta pentsatu aritu zen, eta halako batean ...

- Bazakinat! – esan zuen.

Babarrun-landareari zati bat kentzera joan zen, falta zitzaion hezurra zizelkatu Eta Filipa guztiz osatu zuen, oinetatik bururaino. Jostun ona zenez, haragizko traje bat egin zuen Filiparentzat, eta larruzko beroki bat josi zion. Eta poetatik ere bazuenez, amonatxo-hitz batzuk abestu zizkion, berak zekizkien horietakoak. Antea kantuz ari zen bitartean, Filipa mugitzen hasi zen. Eta, kantatu ahala, Filipa hizketan hasi zen. Filipak besarkatu zuenean soilik utzi zion Anteak kantatzeari.

Bi amonatxoak orain ere elkarrekin bizi dira, elkarrekin jaten dute, elkarrekin lo egiten, elkarrekin amets ... Astelehenetik ostiralera ur-zopa prestatzen dute. Igandeetan fideo bat botatzen diote zopari, eta erdi bi egiten dute. Abentura-gose direnean, zerura igo, ase arte jan eta berriz jaisten dira. Gainera, uda heltzen denean Filipa babarrun-landare bihurtzen da, gorputzeko zati desberdinetatik zurtoinak eta hostoak sortzen zaizkio eta.